



Bertsozale Elkartearen Berripapera

	ESPAÑA
	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2015eko AZAROA - 168. zenbakia

Kantu inprobisatuari buruzko jardunaldiak, Bartzelonan

Europa bat-batean egitasmoaren baitan gauzatuko dira jardunaldi hauek. Udaberrian eta udan, Euskal Herrian izango dira saioak.

Azaroaren 6an eta 7an, kantu inprobisatuaren inguruko jardunaldiak egingo dira Bartzelonan. Kanariar Uharteetako verseadoreak, Herrialde Katalanetako glosadoreak eta Euskal Herriko bertsolariak ariko dira asteburu osoan Kataluniako hiriburuan. Miren Amuriza eta Beñat Gaztelumendi izango dira bertsoan ariko direnak. Bartzelonako jardunaldietan hiru saio eta mahai-inguru bat izango dira. Ostiralean, azaroaren 6an, eskainiko dute lehen saioa. Badalonako Teatre Blas Infanten izango da, 22:00etan hasita.



Irailean Leonen egin ziren jardunaldiak.//XDZ

Hurrengo egunean, 12:00tan, mahai-ingurua egingo da; emanaldi bat ere eskainiko dute segidan, Graciako Centre Artesà Tradicionàriusen. Amaitzeko, larunbatean bertan, azken emanaldia eskainiko dute Sant Andreuko Ateneu L'Harmonian, gaueko 22:00etan.

Mintzola Fundazioak, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak eta Cor de Carxofa elkarteak antolatu ditugu Bartzelonako jardunaldiak.

Udaberrian eta udan ere, Europa bat-batean

Bartzelonakoa Europa bat-batean egitasmoaren barruan egiten den bigarren jardura da. Irailaren 25ean eta 26an kantu inprobisatuaren jardunaldiak egin ziren Leonen Kanariar Uharteetako verseadoreekin, Galiziako regueifeiroekin eta Euskal Herriko bertsolariekin. Maialen Lujanbio eta Ane Labaka aritu ziren bertsoan, Itxaso Paiaren gaiak gidatuta. Parte-hartzaile zein ikus-entzuleak gustora atera ziren Leonen egindako saiotik.

Leongo eta Bartzelonako jardunaldiak Mintzola eta DSS2016EU fundazioek elkarlanean osatutako Europa bat-batean egitasmoaren baitan kokatzen dira.

2016ko uztailaren 9tik 16ra kantu inprobisatuaren nazioarteko topaketa gauzatuko da Donostian eta munduko hainbat ordezkari gonbidatuko dira. Bertaratuko diren ordezkarien artean, besteak beste, sardiniarrak, kurduak, galiziarak, kanariarrak, katalanak, galestarrak, austriarrak eta poloniarak izango dira.

Topaketa horren harira antolatu dira orain, udazkenean, Leongo eta Bartzelonako jardunaldiak. Apirilaren erdialdera, gainera, hainbat girotze saio egingo dira Euskal Herrian barna.

Badira hogeitau urte bertsolarietako nazioartera salto egin eta kantu inprobisatuaren duten beste kulturetako inprobisatzaileekin abestu eta topaketak egiten dituztela. 2003an egin zen Donostian, lehenengo

aldiz, Ahozko inprobisazioa munduan izeneko nazioarteko topaketa Bertsozale Elkarteak antolatuta. Lau kontinente eta hamaika herritako kideak etorri ziren gurera. Elkar ezagutzeko, elkarrengandik ikasteko eta bat-batekoari buruzko kontzientzia hartzeko pizgarri izan zen. Harrezkeroztik, bertsolarietako atzerrian hainbat jardunalditan parte hartu izan dute.



IBAI ESOAIN ARRUTI
Andoain, 2015-X-11

Doinua: Kantuz sortu naiz eta II

Nun dago zoriona erropan, kotxean?
Nun dago zoriona juergan, otoiitzean?
Nun, izarrei begira?
Nun, lurra lantzean?
Ta guk zer egiten deu ahal deun bakoitzean? (bis)
Bertso kilima batzuk belarri ertzean.

F.C.BAIMEA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Eredakiziora: Bertsozale Elkarte / Doinua-maketazioa: Lanku / Argizakiziora: Xepelarr Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

Euskal ipuingintza egungo liburuetan, bigarren Xenpelar Dokumentazio Jardunaldien gai nagusia

Haurrentzako euskarazko ipuingintzaren argitalpenak aztertu eta ahozko kontakatarako baliabide bezala eskaintzen diren aukerak plazaratu nahi ditugu aurtengo Xenpelar Dokumentazio Jardunaldietan.

Bi eguneko jardunaldiak izango dira; azaroaren 18an eta 25ean Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egingo dira. Horietan, gaur egun argitaratuta dauden haurrentzako liburuetan euskal tradiziozko ipuinek eta ipuin unibertsalek duten egoera aztertu nahi da, bereziki ahoz kontatzeko eskaintzen dituzten baliabideei erreparatuz.

Ekimen hau dokumentazio alorraren inguruko eta, bereziki, Euskal Herriko dokumentazio gaien inguruko gogoetak bultzatu eta ezagutarazteko helburuarekin sortu zen iaz. Orduan, antzerkigintzaren dokumentazio beharrak aztertu ziren.

Doakoak eta zabalik

Itziar Rekalde, Xabier Etxaniz, Pello Añorga, Manu Lopez, Patxi Zubizarreta, Aines Dufau eta Bego Alabazan izango dira bi egunetan gaiaren inguruan ariko direnak. Jardunaldien egitarau osoa eta gainerako xehetasunak www.mintzola.eus webgunean kontsulta daitezke. Jardunaldiak doakoak dira eta interesa duen edonorentzat zabalik daude.

Mintzola Fundazioa, Tolosako Udal Liburutegia eta Koldo Mitxelena Liburutegia dira Xenpelar Dokumentazio Jardunaldien antolatzaileak.



Antzerkigintza izan zen iazko Xenpelar Dokumentazio Jardunaldien gai.//XDZ

Esleitu dira bertsolaritzaren ikerketa sustatzeko proiektu sariak

Mintzola Fundazioaren eta EHUko Laboa Katedraren ikerketa sustatzeko proiektu sarien bigarren deialdiak hiru lan aukeratu ditu.

Beñat Romeraren *Bertsolaritzaren hitzaren arteko irudia*, Jon Martinen *Bertsolaritza eta haurren sormen prozesua* eta Eñaut Agirreren *Bertsolaritzaren jautzia denboran. Ahozko herentzia eta kantaera, komunikaziorako etengabeko bidelagun lanak* aukeratu ditu epaimahaiak, 2.000 euroko proiektu sari bana esleitu eta euren lanak garatzeko. Agirrek uko egin dio sariari, Laboa Katedrak ere saria esleitu baitio, eta zerrendako hurrengoak

jasoko du saria: Pantxix Bidartek, *Etxahun, Otxalde, nor nori nork?* lanari esker.

Proiektu sariak gain, Mintzola Fundazioak eta Laboa Katedrak, EHUko Euskara eta Ikerketa Errektoreordetzekin batera, ikerketa kontratu baterako deialdia egin zuten. Bertsolaritzari buruzko doktorego tesia osatzeko urtebeteko ikerketa kontratua zen eskaintzen zena, 3 urteraino luzatzeko aukerarekin.

Azkenean, ikerketa kontraturako eskaerarik jaso den arren, esleitu gabe uztea hobetsi da.

Azaroaren 14an ospatuko da Bertso Eskolen Eguna Agurainen

Egun osoko festa prestatu da aurtengoan ere Euskal Herriko Bertso Eskolen Egunerako. Agurainek hartuko du ospakizuna aurtengoan, hilaren 14an. 12:00tan elkartuko dira bertso-eskoletako kideak herriko plazan. Jo ta Fa txarangarekin bertso-poteoa hasiko da, eta kantuan ariko dira bertso-eskola ezberdinetako ordezkariak. 14:30ean herri bazkaria egingo dute.

Bazkalostean ere jarraituko du jaiak, *Bertsotruk* egitasmoaren aurkezpena eta gero, Sudurgorriak taldearekin tabernaz taberna ibiliko baikara bertsozaleak.

Bertsotruk, bertso-eskolen egitasmoa

Helduen bertso-eskolen arteko harremanak sustatzeko helburuarekin, *Bertsotruk* ekimena sortu du Euskal Herriko Helduen Bertso Eskolen Batzordeak. Agurainen ospatuko den Bertso Eskolen Egunean bertan aurkeztuko da egitasmoa.



Iaz Senperen egin zen Bertso Eskolen Eguna.//XDZ

Abenduaren 19ra aurreratu dute Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala

Hasiera batean abenduaren 20rako iragarrita bazegoen ere, azkenean Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala egun batez aurreratuko da. Izan ere, 20rako Espainiako hauteskundeak iragarri dituzte eta horren aurrean finala dataz aldatzea erabaki du Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak.

Datatz aparte ez da bestelako aldaketarik; Ilunben jokatu da finala arratsaldeko 17:00etan hasita. Aurrez sailkatzea lortzen duten zortzi bertsolariek hartuko dute parte finalean.

Horrekin lotuta, orain dela hainbat aste salgai jarri ziren Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalerako sarrerak. Gainerako saioetarako bezala, sarrerak www.bertsosarrerak.eus webgunean erosi daitezke. Horrez gain, azaroaren 20ra arte Gipuzkoako hainbat salmenta gunetan ere aukera bada finaleko

sarrerak eskuratzeko. Saltokien zerrenda osoa www.bertsozale.eus webgunean dago kontsultagai.

Finaleko sarrerak 15 euroan dira bazkideentzat, 10 euroan 16 urtetik beherako gaztetxoentzat eta 20 euroan gainerakoentzat.

Hiru saio finalurrekoetan

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak azaroaren 22an ekingo dio finalurrekoen faseari. Lehen finalurreko hori Zarauzko Aritzatalde kiroldegian jokatu da. Azaroaren 29an izango da bigarrena, Tolosako Usabal kiroldegian, eta azken finalurrekoa Eibarko Astelena pilotalekuan jokatu da; bertan erabakiko da abenduaren 19ko finalean ariko den zortzikoa.

Postua eta hainbat emanaldi, Durangoko Azokan

Abenduaren 4tik 8ra egingo da aurtengo Durangoko Azoka. Urtero bezala, Bertsozale Elkartearen eta Lankuren artean Durangon postu bat izango dugu aurten ere. Bertan azkenaldi honetan argitara emango ditugun produktuak egongo dira, horien artean *Xalbador: izena eta izana* dokumentalaren DVDa.

Horrez gain, Durangoko Azoka osatzen duten gunek desberdinetan hainbat aurkezpen eta emanaldi egingo ditu Lankuk:

Abenduaren 5ean, 11:30ean, *Istoria trukea(n)*. Ahotsenean.

Abenduaren 6ean, 11:30ean, *Bi poliedro*. Ahotsenean.

Abenduaren 6an, 12:30ean, *Garai hura gara*. Ahotsenean.

Abenduaren 7an, 17:00etan, *Kapulana bat zintzilik*. Ahotsenean.

Abenduaren 6an, 13:20ean, *Bertsolaritzaren sekretuak*. Sanagustin antzokian.

Abenduaren 7an, 16:00etan. *Kontu eta kantu*. Saguanbaran.



Puntua jarrita

ANE ZUAZUBISKAR IÑARRA

Bertsolaritzaz ezer esateko hemeretzi urte gutxiegi iruditu, eta puntua hemezortzikoari jarri badaezpada. Ondo Maider, ondo. Badakizu opari paperean bildu eta banatzeko beste kontraesan daramatzadala zapatetan egunerokoan, eta ez direla desagertzen bertsotan ari naizenean.

Bere baitan erdigune adina ertz dituen bazterreko komunitate baten erdiguneko jarduntzat dut azkenaldian bertsogintza. Emakume izateak beste (edo gehiago) baldintzatuko nau gipuzkoarra, gaztea edo euskaldun zaharra (gehitu nahi beste adjetibo) izateak; erdigunean edo bazterrean kokatu nadin.

Ez naiz alferrik sentitzen deserosoago emakumeei soilik bideratuta dagoen bazkari feministan, mutilez lepo dagoen gaztetxe bateko oholtzan bertsotan baino. Ez nau kasualitatez eroso sentiarazten herri euskaldun bateko jaietan antolatutako poteoan kantatzeak; eta urduritzen euskaltegiko lehen urratseko ikasleen aurrean bertsotan aritzeak.

Zapatekin gertatzen zaidana gertatzen zait bertsotan ere; mendiko oinetakoak erosoak izanagatik, gustura jantzen ditut takoidun botak. Erdigunetik zenbat eta hurbilago egon (norbera eta egoera), erosoagoa zait kantatzean. Baina erosotasunak ez nau beti gustura sentiarazten.

Kontraesan gehien sortzen didaten bertsoaldiek eta deseroso sentitu naizen egoerek eman didate zer ikasia.

Zapatei begira oholtzaz idaztea ahaztu ez ote dudan... Hor nire kontraesanik handiena. Badut susmoa, azkenaldian atzamarrak asko eta ilargiaz gutxi hitz egiten dugula; zilborraz asko eta bertsolaritzaz gutxi.

Zuri bertsolaritzaz galdetuko dizut, Aitor Servier, erdigune eta ertzez nik baino gehiago izango duzu eta esateko. Zenbat du bertsolaritzak hegemonikotik eta zenbat periferiatik? Zenbaterainoko lekua dute ertzek bertsolaritzaren erdigunean?

Koplak

Gazteak plazara egitasmoa Araban

Hamazazpi eta hogeita hiru urte bitarteko bertsolariei plazan hasteko edota hasteko aukera emateko asmoz *Gazteak plazara egitasmoa* martxan jarri du Arabako Bertsozale Elkarteak. Urriaren 23an Legution hasi eta azaroaren 28an Aramaion amaituko da aurtengo edizioa. Hiru bertso saio izango dira eta horietan hamabi bertsolari gaztek hartuko dute parte.

Poto-Finixa



Xalto sariketaren hamabigarren edizioa Goizuetan

Nafarroako bertsolari gazteei zuzendutako Xalto sariketaren edizio berri bat egingo da azaroaren 20an. Bertso-afari formatua izango du Goizuetako Umore Ona elkartearen egingo den sariketak. Zortzi bertsolarik hartuko dute parte. Nafarroako Bertsozale Elkarteak da Xalto sariketaren antolatzailea, Goizuetako Udalarekin elkarlanean.

Kontratazioak eta informazio gehiago:

Lanku
www.lanku.com
943 26 07 55

Talo Soto eta Fernando Anburtoy

ISTORIO TRUKEA(n)

KAPULA NAIBATZINTZILIK

KONTU ETA KANTU

FERNANDO ANBURTOY